



a. valmés

Zazpigarrean, deskantsatu

Xabier LETE

Soziologok noizpait besterik esango baluteke ere, sinista ezazue gure haurtzaro, pubertaro eta lehen gaztaroko igande eta festak, berez, hasi, larunbata edo festa-bezpera gaueko garbiketa orokorrarekin hasten zirela. Era berean, illunabarrean, Dionixio Martiarenak kanpantorrera igo eta handik bere deia baillarako baserri, etxe, hauzo, karrika eta zoko guztietara barreiatzen zuen.

Kanpan-saioa bi kategoriatakoa izan zitekean. Igande soil eta mailla apaleko festetan, Dionixiok jardunaldi bakarreko saio ordinariora eskeintzen zuen; festa nagusi eta igande haundietan (bazko igande, etabar) bi zatiko saioa, hau da, Oartzunen betiko esacraz «kanpan doblik» izenarekin ezagutzen zena. Bi denboradun «concerti» horrek giroari nagusitasun berezi bat ezartzen zionik ezin uka, eta Martiarenak, zalantzarik gabe, horrelakoetan bere betekizuna «ofiziatu» egin ohi zuen.

Illunabarrean, haizea ematu egiten zen. Aiako Harriak kolore ubel, urdin-illun ikusgarria hartzen zuclarik, gauza guztiak itxuraldaketa bat nabarmentzen zuten. Dena ariñago, alaiago agertzen zen: gauza, abere eta jendeek, larunbata gaueko ritmo biziago bat zerabilten.

Jai-bezperetan, ortzea bera ere hodei ariñagoz apaindurik agertu ohi zen, hodei zuri pasakorrez beterik.

Horrela, igande eta festak, hasi, garbiketa orokorrarekin hasten ziren. Garbiketa ritual horren lehen arrazoi nagusia ijienean bazetzan ere, beste bigarren zentzu izkutuago bat festa giroari zegokion purifikazio beharrezkora heltzean zetzan. Garbiketarekin, aste bat ixten zen, gure bizitzaren aro labur bat klausuratan. Beraz, garbiketa denboraren zentzuari atxikiz agertzen zitzaigun zerbait zen, eta zerbait hortan bizitzaren molde eta pautara asko simbolizaturik zegoen.

Konfesionarioan animari izpirituzko zikinkerien zolda kentzen zitzaion bezela, barreño edo bañeretan gorputzari pasada on bat ematea era berean prezeptibo gertatu ohi zen; zenbatenago eta zolda haundiagoa itsatsirik eduki, hanbatenago eta beharrezkoago. Nahiz eta bekatua, beti eta nunahi, otso amorratuaren gisan atarian zai jarririk egon...

Barreño edo bañeretan esan det, baiña hitz egiteko era bat besterik ez da. Egia esan, bañerak garai hartan «rara avis» izaten ziren; sozial-kategorien arabera diferentzietan ezik beste giza-ohitura bereziagotian oinarriturikako arrazoiak izaten ziren etxe bat bañeraren jabe izatera bultzatzen zutenak.

Horrela, nere osaba baten etxean bazen zink-esmaltatzuko lau ankadun bañera ipur-borobil desegoki bat. Garbialdi bat hartzeko ezik irrist egin eta kankarreko bat jasotzeko gehiago egiña zegoela zirudien bañera hartan, hamaika gimnasia zail egiñak gera, alafede... Baiña hauek geroxeagoko historiak dira, gaztaro urbilago eta askeago baten garaiko sibirismoak. Jatorrizko denboretan, barreñoa izaten zen gure herriko etxe gehienetan erabiltzen zen tresna nagusia, garbitasun orokorraren ontzi sakratua.

Orduan, garbiketak bi fase izaten zituen: lehen fasea, egunerokoago, ez hain ikaragarri, gerritik gora arraskan kumplitzen zena; bigarren fasea, gerritik berakoena, sukalde itxiaren bakardade lotsatian barreñoan sarturik norberak bere norberetasunean protagonizatzen zuen hura...

Orain hogeit urte, oso oker ez banago, igandea oraindik igande zen, eta jai-eguna oraindik jai-egun. Jendea igande eta festa-egunetara, «zazpigarrenean, hatsa hartu zuen» dioen pasarteaz gidaturik, Bilbiaren esanaren izpirituz beterik heldu ohi zen. Bai; Jehova berak zazpigarrenean hatsa hartu eta siesta on bat bota baldin bazuen, gure guraso zaharrek ez zuten gauza bera ez egiteko arrazoi nagusirik aurkitzen.

Beraz, igande edo festa bat lege onean igarotzeko ez zen, hain zuzen, ezer berezirik egin behar; hortan zetzan, hain zuzen, festaren festatasuna, ezer egin beharrik ez edukitze hortan. Eta festa bat ospatzeko zer era ederragorik ezer ez egitea baiño?

Gaur, diotenez, gauza hauek ez dira oso ongi konprenditzen; jendeak, obsesionaturik bizi denez gero, igande eta festak mogimendu sukartsu batetan igarotzen ditu. Gizonak, beti sufritu dituen premia eta aginduz aparte, beste bat darama gaur bizkarren gainean, agindu gogor bilakatu zaion zera bat: jai-egunetan dibertitu egin behar da.

Ondartza batean eguzki galdatan kizkaliz, elur puska baten gainean irristatzeagatik automobillean seirehun kilometro egiñaz, andrea eta umeekin joan eta erreka-bazter bat paper zikin, naranja-azal eta melokotoi potoz zerri arraioa eginta utziz... ahal den bezela, baiña jai-egunetan dibertitu egin behar da, eta dibertitzen ez dena, tonto frustratu bat da.

Horrela, siestarik gabe, barreñorik gabe, ez goaz iñora, eta gaur garai bateko jokaera zeremonial haiek ez dira konprenditzen. Izan ere, haiek denborak denbora haiek!

Heraklitok zioen bezela, iñor ez da erreka berean bi aldiz bañatzen, erreka baten baitan dena aldatuz baidoa, bañatzen denaren baitan bezelaxe...

Iñor ez da erreka berean bi aldiz bañatzen, ez eta bañera berean ere, esango genuke guk.

Hala ere, ez da uste izan behar garai hartan egin behar zenik egiten ez zenik. Ez zen dena atsedean eta lo gozo. Igande eta jai-egunek berezitasunaren aureola zuten, hain zuzen, eta horregatik egun haietan gauza bereziak egin eta kumplitzen ziren: bixita, ospakizun eta eskursioak, besteak beste.

Eta, batez ere, eleizari zegozkion prezepto guztiak: meza soil, meza nagusi, jaunartze, prozesio, bezpera, erro-sario, sermoi eta, zegokionean, kalbarioak. Hala ere, dena ez zen paotxa. Adibidez, baserriar gehienek, dakigunez, igandeko meza nahikoa eta aski izaten zuten, espezio bakanak aparte.

Emazteek, baserri edo kale, elizako zeremonien barrokismoa berotasun gehiagorekin hartu ohi zuten... Hala ere, gai hoietaz zehaztasunik ugari eman ahal badukegu ere, ezin da iñundik ere azken hitzik esan. Ezin esan, adibidez, jendeak azken finean zertan sinisten zuten edo erlijio sailduaren gauza hoietaz zer irudimen mota erabiltzen zuten.

Baiña, nola nahi dela ere, igande eta jaiak beren araudia bazuten, araudi hori erdi obligazio erdi debozioz osaturik zegoen, eta bete egiten zen.

Gu mutlikozkor giñelarik, eta orain denbora gutxi arte, Oartzungo elizkizunak honela banaturik zeuden: illabetean igande bat, Mariaren alabena; beste bat, Luistarrena; hirugarrena, *Apostolado de la oración* zelakoarena; eta laugarrena, Hirugarren ordenakoena... Hortik aparte beste iganderik libre gelditzen bazen, arratsaldeko funtzioan bezperak kantatzeko aprobeztatzen zuten. «Deus in adiutorium meum intende... Domine ad adjuvandum me festina...»

Bezperetako garaian eleiza itzaltu egon ohi zen, eta doi-doiaren estalitako lo-zurrugan oihartzuna fantasma bat bezela planeatuz ibiltzen.

Kongregazioko mezak beroago izaten ziren, bortitzago, igande goizetako lanbro bustiak, edo izotzak, neska-mutilen matelak gorritzen zituelarik.

Gero, erlijioa osotasun bezela bizitzen genuen familia aukeratu eta jator-jatorrentzat, meza nagusia geratzen zen. Meza nagusi saildua, igande orotakoa; erreberentzia ongi neurtuak, gloria eta kredoa.

Meza nagusia, zer esanik ez, kaletar jendearentzat izaten zen, batez ere. Funtzionario, adineko andereño, langile kualifikatu, deboziodun señora eta gazte birtutedunentzat. Eta, oro har, beste meza laburrago bat entzuteko ohetik garaiz jeikitzen ez ziren guztientzat...

Igande soiletatik aparte, igande haundi eta festa bereziak zeuden: Bazko igandea, Eguberri, Corpus, etabar. Egun berezi hauek, meza nagusia elkar bizitzaren eta

sozial harremanen sublimazio billakatzen zen. Egun haietan, bere burua zerbaizat zeukanak meza nagusira ez zuen faltatzen.

Corpus eguneko prozesioak debozioaren goi-mailla adierazten zuten. Egun hortako prozesioak, besteak beste, lore-usai sarkor baten oroitzapena du nerretzat: udaberriaren usaia.

Egun hortan, «gudaritxoek» fanfare haundi bat montatzen genuen. Gurutzaduen gure jantzi bereziz ornituz, prozesioaren lore-xorta sentimental eta burrukalaria osatzen genuen eta «Jaunaren eskoltakuk» zirenek, beren lantza eta guzti, zer esanik ez. Eskoltakua izateko, tipo zuria izan behar zen; ez nolanhiko billigarroa.

«Gudaritxoek» numero fuertea oihu egitean zetzan. Prozesioan gindoazelarik, don Pablok, gutxien espero zen momentuan, «Oiantzun!» oihu egiten zuelarik, guk izugarritzko durrunda atereaz «Gogor erantzun!» erantzuten genuen...

Batzutan, Corpus eguneko prozesioa euri-zaparra ikaragarri baten azpian bukatzen zen; zeru goitarraren kolaboraziorik eza, ala eguraldi sargoriaren ondorenak? Nork daki. Batzuek, euri-jasa hura konsagrazio garaiean gertatzen zenaren kastigutzat hartzen zuten; beste batzuek, aldiz, «¿Qué pena, qué pena de tiempo!» esanaz, zeru haserretuaren partizipazioa disimulatu egin nahi izaten zuten. Ai, Corpus eguneko konsagrazioa, kristau-maitasunaren zer nolako adierazpen ederra izan ohi zen!

Igande eta festa-egunetan, meza nagusiaren ondotik eta bazkari garaia arte bakoitzak denbora ahal zuen bezela pasatzen zuen; aterabiderik arruntena, tabernaz-taberna baxoerdiak edaten ibiltzean zetzan. Beltz eta zuri, hamaika litro pasatzen zen herritar jatorren zintzurretatik; batzuk, ohiturari jarraituz, ipurtzuloraino betetzen ziren, nahiz eta gehienek disimulatzen ongi jakin.

Mutilkozkor eta gazte erdi-lumatuek ez genuen disimulatzen jakiten, eta horregatik ez giñen gizon osotzat hartuak izaten. Ahal zena egiten zen, zer arraio.

Jai haundietan, txikiteoa kanturriada bilakatzen zen; kanturriada ez zen beti ordu berean hasten, baiña beti hamabietatik aurrera. Kanturriadak itxura desberdiñak har zezazkean: egunaren eta zurrutaren arabera.

Batzutan, zarzuelari ekiten zitzaion, eta koral ospetsuaren batetan solista izandako norbaitek bere gorgoritoak ateratzen zituen. Bestetan, sentimentalismoaren labea berotzen zelarik, «En el monte Gorbea» eta horrelakoak kantatu

ohi ziren. Azkenik, egun ospetsuetako repertorioa geratzen zen: Eguberri inguruan, «Mesias sarritan agindu dana» eta «Ator, ator mutil etxera»; Bazko igandean, berriz, jendea bizia emateko zorian jartzen zelarik, «Nere aberri laztana» eta «Sabin no debiera morir»... Eta horrekin, beste vermouth bat gehiago.

Gauza bat dago garbi: arratsalderako, kristau debozioa asko epeltzen zen, eta elizako funtziorako jendeak joera haundiegirik ez zuen agertzen. Bekatua, beti bezela, han egoten baizen tentazioaren sareak zabalduz. Tentazioa, urte haietan, Erreteriko dantza eta hango zineak izaten ziren.

Horrela, guraso zaharrak lasai pasiatzera ateratzen ziren bitartean, arratsaldeko lauterdi eta bostetan Oiantzungo plazan igande oroz izugarritzko espektakulo hitxi eta espan-tagarria ikusi ahal izaten genuen. Berrogei lagun kabitzen zituen autobus batek, chun pertsona inguru nola iresten zituen ikusteko gozamina gratis eskaintzen zitzaigun herri-tar patxaratsu guztiei... Epeleren autobus ospetsu haietan, giza-banitateen heriotza igande oroz kontsumatu ohi zen.

Autobus haietan, traje eta gona, orrazkera eta makillajeek, izugarritzko iraiña jasan ohi zuten. Eta, batez ere, oiñetakoek; oiñetako lustredun, oiñetako txarolatuek. Oiñetako haiek, batere gezurrik gabe, Jorge Manrique-ren zera hura erreziata zezaketen: «Nuestras vidas son los ríos que van a dar en la mar, que es el morir...» Han, egoera hartan, itsasoa Erreteria zen, eta Epeleren autobusa zerraldoa.

Erreteriko dantza famatuaz ez naiz mintzatuko. Bekatu zaharrak ahaz ditzagun... Zumardiko dantza famatu hartara, Dante Virgilioren eskutik beste munduko egon-tokietara bezela sartu beharra zegoen, zurrunbilloan galtzerik nahi ez bazenuen. Han, bromak aparte, adiñaren eta sexual prentensionen arabera partzelak ongi mugaturik zeuden. Periferiatik barruruntz, partxeoaren aukerak eta asfixiaz hiltze-koak geituz joaten ziren.

Gero, gaueko hamarrak aldean, bakoitzak erretirada ahal zuen bezela organizatzen zuen.

Eta horrela, igandea igandeari itsatsiz, jendeak mundu hontako bizimoduaren garai guztietako premiarik nagusiengatiko bati erantzuna ematen zion. Hau da, gehiegi aspertu gabe, jendeak denbora ahal zen bezela pasa nahi izaten zuen. Gutxi ahal da? Ez dut uste. Gaur ere horrela gertatzen da eta, gutxi gora behera, beti berdin izango da.

Beraz, soziologoek noizpait besterik balioeteke ere, sinista ezazue igande esta festak, hasi, larunbata gaueko garbiketara orokorrarekin hasten zirela.